



Kontzertuak eta Galtzaundi Ostegun Gizenean agertzea, berrikuntzak

TOLOSA ▶ Atzo aurkeztu zuten 2007ko Inauterien egitarau zabal eta berritua Udal ordezkariak ▶ 2



Ezker-eskuin: Isitxo Larrañaga, Andoni Iturzaeta, Joselu Andueza eta Bautista Aranzabe. I. TERRADILLOS

TOLOSALDEA ▶

Grebarako deia babestu dute bost paper lantegik

LABen esanetan, «Adegik eskaintza aldatu duela sinestarazi nahi du» ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Jolasean ere euskara bultzatzeko proiektua

Fleming eskolan eta Jesusen Bihotza ikastolan 'Euskaraz Mintza' proiektua abiarazi dute ▶ 6



Flemingo umeak jolasean i. g.

ALEGIA ▶

Intxurre futbol elkarteko taldeak igoera fasean dira

Seniorrek eta lurraldekakoek aste honetan jokatuko dituzte partidak ▶ 5

ARESO ▶

Elutsederko lanak datorren astean hasiko direla dio alkateak

Baraibarrek ezinbesteko baimena aste honetan helduko dela uste du ▶ 7

LIZARTZA ▶

Mozorroz eta musikaz bustiko dituzte kaleak bihartik igandera

Inauterien berreskuratzea azaldu du Malentxo Arrospide antolatzaileak ▶ 4



Malentxo Arrospide. M. SOROA

INAUTERIAK ▶

Galtzaundiren agerpena eta gaueko kontzertuak, aurtengo Inauterietako berrikuntzak

Ostegun Gizeneko txupinazoaren ostean egingo du agerpena Inauterietako ikurrak; gazteenentzat emanaldi bereziak antolatu dituzte Zerkausion



Bautista Aranzabe, Joselu Andueza, Andoni Iturzaeta, Jokin Monfort eta Isitxo Larrañaga Tomas Hernandezek eginiko Inauterietako kartelarekin, atzo eskainitako prentsaurrekoan. I. T.

INIÑO TERRADILLOS

Badatoz urteko festa ero eta dibertigarrienak, Inauteriak. Jatorria historialari adituek argi ez badute ere, batzuen ustez, Garizumaren aurreko una bezala sortu omen ziren, hau da, era guztietako penitentzia, sakrifizio, zigor eta barauz osaturiko epearen aurretik oreka bat bilatu nahian, hasi ziren Inauteriak antolatzen, Garizuma esanahiaren aurkako ekin-tzekin. Beste batzuen ustez, ordea, ez dute kristautasunarekin inongo loturarik Inauteriek. Sorrera alde batera utzita, badakigu Inauteriak ez direla Euskal Herrira bakarrik hedatzen, eta mundu guztiak ezagutu eta bizi izan dituela, baina tolosarrentzat ez dago Tolosako Inauteriak bezalakorik.

Hala, atzo udaletxean eginiko aurkezpenean, Bautista Aranzabe jai batzordeko kideak, Joselu Andueza Garraio eta

Ingurumen zinegotziak, Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak, Jokin Monfort Kultur teknikariak eta Isitxo Larrañaga Erotexe txarangako kideak datorren ostegunean, hilaren 15ean hasiko diren Tolosako Inauterien inguruko xehetasunak eman zituzten.

Aurtengo Inauteriek ez dituzte berrikuntza nabaririk izango, «gure apostua arrakasta lortu duten 3 zutabe nagusiak sustatzea baita», azaldu zuen Andoni Iturzaetak. Zutabe nagusi horien artean, zezenen inguruan sortzen den festa, bai arratsaldero izaten dena, bai eta sokamuturra ere, legoke. Bestetik, txarangak —23 txaranga ariko dira, denen artean 36 irtenaldi egingo dituztelarik— eta musikak osatzen dute bigarren zutabea: «Tolosako abestiak dira entzuten direnak egun horietan, tolosarrekin eginak, eta hori oso garrantzitsua eta berezia da»;

azken zutabearen tolosarren garrantzia nabarmendu zuen Iturzaetak, «herritarrek baitira konpartsak antolatzen dituztenak, danborradak... arrakasta herritarrek beraien festa bezala sentitzen dutelako lortzen da, eta horretan Udalak, esaterako, ez dauka meriturik». Denora, 15 karroza eta 170 konpartsa aterako dira aurtun, herritarren parte-hartze handia, beraz, argi ikusten da. Kultur zinegotziaren esanetan, «gure helburua 3 zutabe horiek sustatzea izan da, eta bete dugula uste dugu».

Berrikuntzak eta aldaketak

Tolosako Inauterien arrakasta lortu duten zutabeak urtetik urtera mantentzen badituzte ere, beti izaten dira berrikuntzak. Aurtengoan, «esfortzu berezia» egin dute musika taldeekin, gauak zertxobait gehiago betetze aldera, eta gazteenei

zuzenduta, batez ere». Zaldunitan, Plaza Berrian, Xikinkei eta Losdelgas taldeen kontzertuak izango dira 23:30etik aurrera, eta ondoren Diskotop 04:00ak arte. Berrikuntza bezala, Zerkausion, euskaraokoa izango da 19:30etik 22:00ak arte gazteoenentzat. Astelehenitan ere Zerkausion festa berdinarekin egingo dute topo gazteenek, eta Plaza Berrian, berriz, Bisai eta Dikers taldeen musika izango da, eta ondoren Diskotop-en musika.

Larrañagak, era berean, Erotexe atera berri duen bigarren Inauteri diskoa gogorarazi zuen. «16 piezekin osaturiko lan honekin eta duela hiru urte eginikoarekin lana borobiltzea lortu dugu; gure festentzat errepertorio bat dugula ikus daiteke disko hauekin, eta hori ez dago edozein herritan», azaldu zuen, eta herritar guztiak animatu zituen herriko tabernetan salgai dagoen diskoa erostera.

Aurtengo aldaketei dagokierenez, Zerkausion gazteenentzat egingo duten musika festaz gain, Galtzaundiren agerpenarena dago. Orain arte, larunbatean egin zuten danborradaren ostean, eta aurtun Ostegun Gizeneko txupinazoaren ondoren egingo du agerpena. «Inauterietako ikurra izanik normalean ostegunetik agertzea baitzen».

Antolatzaileek, herritarrez gain, bereziki kanpotarrak animatu nahi dituzte Inauterietako ohiko ekitaldietara etortzera, «benetako giroa zein izaten den ezagutu dezaten».

Garraio publikoa eskura

Inauterietan batez ere, garraio publikoa erabiltzeko gomendioa egin dute Udal ordezkariak, eta horretarako dauden aukeren berri ere eman zuten atzo eginiko aurkezpenean.

Hiribusari dagokionez, larunbat honetan, hau da, Kaldereroetan, Ostegun Gizenan, Ostiral Mehean eta Zaldunita Bezperan azken bidaia 22:00etan egingo du. Zaldunitan, berriz, 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara egingo du ibilbidea. Astelehenitan eta Asteartitan, 07:30etik 10:00etara egingo du ohiko ibilbidea, eta 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara Zubi Berria-Amarotz-Usabal industrialdea-Usabal kiroldegia-Jurramendi-Iurre-Kondeko Aldapa-Zubi Berria izango da ibilbidea.

Tolosaldea autobusaren ordutegi bereziak hauek izango dira: Kaldereroetan, Ostegun Gizenetik Asteartitara, 00:30ean, 02:00etan eta 03:30ean izango dira azken bidaiak San Frantziskotik Iurre-Amarotzera, Alegira, Amezketara eta Ikaztegieta; 01:00etan, 02:30etan eta 04:00etan, berriz, San Frantziskotik, Iurre-Amarotzera, Ibarrara, Berrobira, Elduara, Elduanera eta Berastegira.

Donostiarako autobusekin, berriz, Kaldereroetan eta Inauterietako egun guztietan Asteasu, Zizurkil, Villabona, Irura eta Anoetatik egingo du joan-etorria 23:00etatik 04:30era bitartean. Renfek ere zerbitzuak areagotuko ditu Inauterietarako, eta Zaldunita Bezpera, Zaldunita eta Astelehenita gauean orduro jarriko dituzte trenak. Tren berezi hauek, ordea, Tolosako geltokitik irtegan dira soilik. ◀

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

PAPERGINTZA ▶



Sindikatuak deitako mobilizazioen artean hainbat auto karabana egin zituzten papergintzakoek. E. EZEIZA

Zazpi enpresetatik bostetan greba egitea erabaki dute

LABekoen esanetan, «gezurretan ari da Adeg, ofizialki eskaintza aldatu ez badu ere hau sinestarazi nahi baitu»

ESTI EZEIZA

Papergintzako enpresen langile batzordeak ez dira adostasun batera heldu oraindik enprekin. Hori dela eta, joan den asteazkenean batzarrak egiten hasi ziren lantegietan grebara joan edo ez erabakitzeke. Oraingoz Gipuzkoako zazpi lantegietan egin dituzte bozketak, eta geratzen diren beste hiruretan, gaur eta bihar artean egingo dituzte. Luzatu dituzten datuen arabera, bozketak egin duten zazpi enpresetatik bostetan baiezkoa ateratu da, beste batean ezezkoa, eta azkenekoan berdinketa.

Zazpi lantegi hauetan biltzen da Gipuzkoako papergintzako langileen %75a baino gehiago. Hala, papergintzako langileen artean adostuta dagoenaren arabera, Gipuzkoa mailako kontaketa burutzen da, eta langileen gehiengoak grebara jotzea erabakitzen badu, enpresa guztiek hartu beharko dute hemen parte. Eskualdeko paper fabrikei dagokionean, oraingoz, Berastegiko Munsjkjö, Amezketako Aralar eta Zizurkilgo Orian egin dituzte bozketak. Lehendabiziko dietan grebara jotzea erabaki dute, eta azkenekoan ezetz. Oraindik erabakitzeke duen

Tolosaldeko enpresa bakarra Sarrio da.

Guztira 1.500 langileengan du eragina negoziazio honek. Eta hauek ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuak ordezkatzeko dituzte.

Negoiazio prozesua

Joan den urteko urriaren 24ean sindikatuak eta ADEGik egindako bileran, alderdi bakoitzak bere proposamena aurkeztu zuen. Egun hartako bilkurako aktan biltzen denaren arabera, Adegik 2007 eta 2008rako soldadak KPIaren %127a proposatzen zuen. Honekin batera azpimarratuz hau izango zela beraien azken eskaintza. Baina Adegik bidalitako azken prentsa oharren arabera KPIaren %137ko iguera eskaintzen duela adierazi du. Bi eskaintza ezberdin horien aurrean, LAB sindikatuko ordezkariak diote «kontraesanetan» erortzen ari dela Adeg. «Aktetan bildutako enpresen arabera, eta hau da ofizialki balioa duena, beraiek proposatzen duten iguera %127koa da». Bestalde, bilkura egin zenetik hona bi prentsa ohar ezberdin bidali dituzte: lehendabizikoan eskaintzen dutena eta bigarrenkoa desberdinak direlarik.

Hala, denbora tarte honetan ez da inolako harremanik edo negoziatarik egon bi alderdien artean. Hori dela eta, LABekoen esanetan, «Adeg gezurretan ari da, langileei sinestarazi nahi baitie %137a eskaintzen dutela, baina benetan ez da horrela, ofizialki prentsa oharrek ez baitute baliorik, eta ez da logikoa gauza hauek prentsa bidez igortzea».

Sindikatuakoen ustetan, «informazio oker» hau ari da zabaltzen Adeg, «ikusi dutelako batzarrean gauzak ez zirela ondo joan eta langileak mobilizatzen hasi zirela».

Sindikatuak enpresen ordezkariak eskatzen zietenarekin ados ez zeudenez, urte honen hasieran mobilizazioekin hasi ziren. Honek eraginik izan ez zuenez, elkarrekin adostuta grebarako deia luzatu zuten lau sindikatuak, ELA, LAB, UGT eta CCOO. Hala, oraindik ere greba egingo duten edo ez zehaztu gabe badago ere, erabakia aurrera eramanez gero, egunak zeintzuk izango liratekeen finkatu dituzte sindikatuak. Lehenengo deialdia, otsailaren 17rako deitu dute. Hurrengo bi egunetakoan izango litzateke, 24 eta 25ean. Eta azkena, hirukoia, martxoaren 2, 3 eta 4an.

TOLOSA ▶

Merkatarientzako informatika ikastaroak

Informatikako oinarrizko ikastaroa antolatu du Dendaratean elkarteak. Hau hil honen 26an hasiko da, eta martxoaren 9an amaitu. Ordutegiari dagokionean, 14:15etik 16:15era izango da. Jardunaldi hauek, Igarondo, Ibarra eta Gipuzkoako Merkatarien elkarteko bazkideei zuzenduta daude. Interesatuak erreserba egiteko 943 425557 zenbakira deizakete, eta Izaskun Insausti-trengatik galdetu.

TOLOSA ▶

Haur Eskolako aurrematrikula

Ikastetxeetako matrikula egiteko garaia iritsi den honetan, Tolosako Udalaren Haur Eskolak ere 2006-2007 ikasturteko aurrematrikula martxan du. Hau egiteko epea martxoaren 2ra artekoa izango da. Informazio gehiago nahi duenak Udalaren Euskara eta Hezkuntza Zerbitzura edo Haur Eskolara bertara jo dezake. Baita 943 697453 eta 943 654466 telefonoetara deituta ere.

TOLOSA ▶

Musikene Big Band, bihar Leidor aretoan

Bihar, Musikene Big Banden kontzertua izango da Leidor aretoan. 20:00etatik aurrera, mundu mailako musikari handien doinuaren entzun ahal izango dira, euskal talde honen eskutik. Bob Sands-en zuzendaritzapean interpretatuko dituzten abestietako batzuk dira: Oliver Nelsonen *Stolen Moments*, Bob Mintzerreren *Like A Child*, Frank Fosterren *Down For The Count* eta Duke Ellingtonen *Concerto For Coote*.

TXOTX

- Arratzain**
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil
- Oialume Zar**
Mikel Arozamena bidua, 16 (autobus geltokiak gorlu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga
- Gartziategi**
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga
- Iparragirre**
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani
- Urbitate**
Ergobia auzoa
Tel.: 943 180 119 Atan
- Gurutzeta**
Oialume bidua, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga
- Akelenea**
Oialume bidua 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga
- Lizeaga**
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga
- Elutxeta**
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta
- Rezola**
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga
- Larre Gain**
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

Mozorroz eta musikaz beteko dira herriko kaleak hiru egunez

Joan den asteburuari jarraikiz, Lizartzako inauterien bigarren zatian murgilduko dira herritarrak bihartik aurrera

MADDI SOROA

Gibelaren dastaketarekin ekin zieten lizartzatarrek herriko inauteriei joan den larunbatean. Bihartik aurrera, ordea, inauterien bigarren zatian murgilduko dira herritarrak, usadio zahararen antzera.

Mozorroz beteko dira herritarrak, apainduraz kaleak eta kolorez, berriz, balkoiak. Ez da giro onik faltako eta ondo pasatzeko hamaika arrazoi izango dira bihartik hasita igandera bitarte herrian.

Urtero bezala, ekitaldien artean ez da faltako puske-biltzea edota ijitoaren erretzea. Base-riz baserri, bertakoekin hizketalditxoak egin eta barrenak asetzeko aukera izango dute bertaraturikoei larunbatean, goizean goiz. Inauteriei amaiera emateko, berriz, plazan ijitoa erreko dute 20:30ean.

Inauteriak amaitu aurretik, ordea, ospakizunez beteriko hiru egunez gozatu behar da.



Otsolar dantza taldearen joan den ostiraleko saioa. HITZA

MALENTXO ARROSPIDE ▶ INAUTERIEN ANTOLATZAILEA

«Frankismo garaian inauteriak desagertu egin ziren»



MADDI SOROA

M. Soroa ▶ Lizartzako Otsolar dantza taldeko kidea da Malentxo Arrospide (Lizartza, 1955) eta bera da beste batzuekin batera Lizartzako inauteriak berreskuratu dituen.

Lehen ez al zen Lizartzan inauteririk ospatzen?

Frankismo garaian, gainontzeko herrietan bezala, inauteriak desagertu egin ziren eta 50 urtetan zehar ez da inauteririk ospatu. Lizartzan, ordea, inauteri dantzak mantendu egin dira denboraren poderioz, Amezketan eta Abaltzisketan bezala. Lizartzaren kasuan Iñaki Zubeldia inauteri dantzak erakusten ari da herritarrei.

Otsolarrekoek, ordea, inauteriak berreskuratu dituzue.

1993an dantza taldekoak elkartu egin ginen inauteri dantzak errekerperatzeko asmoz. Bide batez, inauteriak ere errekerperatzea pentsatu genuen. 1994ean ospatu genituen lehen aldiz txantxo eta puske biltzearekin. Arrakasta izan zutela ikusita, urtero ospatzea erabaki genuen.

Inauteriek hasteko txekorria jaten duzue.

Garai batean, Tolosan bezala, aste bete irauten zuten inauteriek eta dantzariak egun guzti horietan jakia edukitzeko txekorria hiltzen zuten. Gu ere hasi ginen ohitura hori berreskuratzen baina animalien aldeko elkarteak direla eta, txekorria ez hiltzea erabaki genuen.

Nondik dator bi asteburutan ospatzeko ohitura?

Txecorra hil ondoren, haragia oraindik gogorra egoten zenez astebete beranduago ospatzen ziren inauteriak. Orain ez da txekorriak hiltzen baina jende askok Tolosara joateko ohitura duenez, lehenago egi-tea erabaki genuen, herriko giroa mantentzeko.

Inauteriak berriz desagertzeko beldur zara?

Aurten 14. urtez ospatuko dira eta hala segi dezagula urte askoan. Guk ezagutu ez genuena haurrak orain ari dira ezagutzen eta beraiek dira etorkizuneko inauterien jabe. Ikusten dugu gazteak ohitura zaharrik mantentzen saiatzen ari direla eta horrek poza ematen du. Beraien esku geratuko dira etorkizuneko inauteriak. ◀

INAUTERIAK ▶ EGITARUA

OTSAILAK 9, BIHAR

14:15. Mozorro festa eta kalejira, eskolak antolatuta.
20:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia, Aztinondo pilotalekuan.

OTSAILAK 10, ETZI

07:00. Kalejira plazatik abiatuko da, dantzari, txantxo eta txistulariekin.
07:30. Puske-biltze irteera, dantzari eta txantxoekin.
09:30. Etxe-zahar baserrian

gosaltzeko geldialdia izango da.

12:00. Mozorro, karroza eta txarangen irteera. Errota ataritik.

13:30. Kalejira Arrateko zubitik abiatuta.

18:00. Gurdi eta mozorroak Jose Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran jeisteko.

▶ Sagardo eta talo dastaketa egingo dute.
21:00. Koadrilen arteko afaria Aztinondo sagardotegian.

OTSAILAK 11, IGANDEA

11:00. Meza Nagusia txistulari eta dantzariekin.

12:00. Dantzariak puska biltzen ibiliko dira. Gurdiak eta mozorroak ere bertan ibiliko dira.

13:00. Lizartzako inauteri dantzak ikusgai herriko plazan.

14:00. Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan, ondoren, txaranga eta jokoak.

20:30. Plazan ijitoa erreztu aurretik inauteriak.

dantza
ikuskitzuna
LIZARTZAN



Otsailak 9, Ostirala
20:00etan

OTSOLAR dantza taldearen
emanaldia

Lizartzako Aztinondo
pilotalekuan

ALEGIA ▶ KIROLA

Intxurreko taldeak igoera fasean daude

Seniorrak eta lurraldekakoak asteburu honetan hasiko dira jokatzeko



Intxurreko jubenilak kopa jokatzeko ari dira. P. RENOBALDES

NEREA URBIZU

Intxurreko lurraldekako eta senior mailako neska futbolariak asteburu honetan ekingo diote igoera fasea jokatzeari. Lurraldekakoak Gazteak taldearen aurka jokatuko dute Eibarren, igandean 19:00etan. Neskek, berriz, Laskorain tolosarren kontra, Usabal kiroldegian. Norgehiagoka bihar 20:45ean hasiko da.

Santos Irazustabarrena entrenatzailea duela 12 bat urte hasi zen Intxurreko futbol taldearekin, «infantilen mailan zeudenean». Lurraldekako futbol taldeak igoera fasea jokatu du azken urte hauetan baina ez du lehenengo mailara igotzea lortu: «Duela 3-4 urte lehenengo mailan izan ginenean, lau urtez-edo, baina jaitsi ginenetik ez gara berriz igo».

Futbol taldea «iazkoa baino osatuagoa ikusten dut», dio Irazustabarrenak: «Mutil berriak daude, baina lehenengo ere daude eta beraien artean jokatzeko ohituago daude. Gainera, jokariak gogotsu daude».

Igoera fasea beste sei taldeekin jokatu beharko dute: La Salle, Antzuola, Elgeta, Mariño, Mariño B eta Gazteak taldeen aurka, hain zuzen ere. Horrez gain, beste multzo bat ere bada, beste 7 taldez osatuta.

Neskek igoera fasea Idiazabal Garabi, Idiazabal Garabi B, Altzakoak, Zestoa A, Laskorain eta Orixe Tolosakoaren aurka jo-

PARTIDAK ▶

MAILAZ MAILA

Lurraldekakoak. 2. mailan daude, igoera fasea jokatzeko. Saillapen nagusian 2. egin zuten 25 punturekin, eta Urnieta taldearen atzetik.

▶ Hurrengo partida: igandean Eibarren 19:00etan.

Senior neskek. Saillapen nagusian 2. 32 punturekin. Lehen Altzakoak taldea da, eta hirugarren Laskorain.

▶ Hurrengo partida: bihar Usabalen 20:45ean.

Jubenilak. 1. mailako Kopa jokatzeko ari dira.

▶ Hurrengo: Seguran igandean 16:00etatik aurrera.

Kadeteak. Lehenengo mailan igoera jokatzeko ari dira.

▶ Hurrengo norgehiagoka Beti Gazteren aurka, igandean Alegian, 12:00etatik aurrera.

katu beharko dute. Zazpi talde hauen artean dago aurtengo irabazlea.

Gaztetxoak ere fin

Jubenilak 1. mailako kopa jokatzeko ari dira eta dagoeneko garaipekin batzuk lortu dituzte.

Kadeteak lehen mailako igoera jokatzeko ari dira, 2-1 galdu zuten azken jardunaldian Lazkaoren kontra. Asteburu honetan Beti Gazteren aurka ariko dira.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiaz Berrian aurrera

64 puntu lortu zituen Ortuellako Danok Lagunak taldearen kontra

N. URBIZU

Ortuellan jokatu zuten Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek asteburu honetan. 64 puntu lortu zituzten, kadeteen eta seniorren garaipena lortuz, eta jubenilek galdutakoa 20 tanto eginez. Gogorra izan zen jardunaldia, aurkariek 59 tanto egin baitzituzten.

Gazteen partidan Telletxea albizturtarraren «joko ona» azpimarratu zuten adituek, nahiz eta partida galdu izan. Nagusien partidan Renobales alegiarak arriskatu zuten, eskuan min hartu zuenean, hain zuzen ere. Azkenik, garaipena lortu zuten. Ia bi ordu izan ziren jokatzeko partida hau.

IV. Berria Txapelketan aurrera egin dute eskualdeetako hiru pilota eskolek: Leitzako

Aurrerak, Amezketako Zazpi-Iturrik eta azkenik, Tolosako eta Bidegoiango Aurrera-Saiazek. Hurrengo norgehiagoka hilaren 24an izango da Hernanin: Leitzakoak Belateren aurka lehiatuko dira. Hilaren 25ean Altzan Zazpi-Iturri Mallabiarekin ariko da, eta azkenik Aurrera-Saiazek Irurtzun talde gogorrenaren kontra jokatu beharko du, martxoaren 4an. Beraz, hiru pilota eskolak Berria Txapelketako 2. kanporaketan dira.

Beste Txapelketak

Euskadiko Klub Txapelketan helduenen hiru partidak irabazi zituzten Aurrera-Saiazek. Hurrengo partida etzi izango dute Irurtzunen, 12:00etan, 22 urte azpikoien

mailan. Udaberri Txapelketan ez zuten horrenbesteko zortirik izan, eta bat irabazi zuten, beste bi irabazteko izan arren.

Udaberri sariko biak irabazi zituzten. Euskal Herriko ligari bi partida irabazi eta bat galdu zuten. Ohorezko mailako biak ere garaitu zituzten.

Amezketan bihar 21:30ean eskuz banaka nagusien mailakoa izango da ikusgai. Unai Legarreta Lemoakoaren kontra izango da kasu honetan. Nagusien mailan Igor Baez Goierrikoaren aurkakoan ariko da. Etzi, berriz, 11:00etan gazte txoen mailako norgehiagoka bat izango da, Olaetxea-Arzelus bikotea Dimakoaren kontra, hain zuzen. Binaka nagusien mailan, aldiz, Elurbe-Beloki Ortuellakoaren aurka ariko dira.

gure etxean
euskara
gure etxean
berria



Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu* gero,
oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
zuk aukeratzen duzun
hauetako sagardotegi batean

<small>GIPUZKOA</small> LARRE GAIN <small>☎ 943 553 846</small> <small>HIEZKUN</small>	<small>GIPUZKOA</small> OTSUA-ENEA <small>☎ 943 956 894</small> <small>HERNANI</small>	<small>BEZKARA</small> IBARRA <small>☎ 946 731 100</small> <small>ZORRITZA</small>
<small>ARABA</small> ITURRIETA <small>☎ 945 445 385</small> <small>ARRANDE</small>	<small>NAFARRA</small> MARTITXONEA <small>☎ 948 604 607</small> <small>ALDIZ</small>	

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, **BIZI euskaraz berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

EUSKARA ▶



Fleming eskolako zenbait haur Euskaraz Mintza programaren saio batean, korroan jolasean ari direla. I. GARCIA

Ikasgelatik at ere, euskaraz

Hurrek betiko jolasak euskaraz egin ditzaten 'Euskaraz Mintza' proiektua martxan dago Fleming eskolan eta aurki jarriko dute Jesusen Bihotza Ikastolan

IMANOL GARCIA

Euskara ikas hizkuntza izateaz gain, bizi hizkuntza, eta beraz harremanetarako hizkuntza naturala bihurtzea da Sortzen Ikasbatuaz elkartearen *Euskaraz Mintza* programaren helburu nagusia. Egitasmoa martxan dago Villabonako Fleming ikastetxean eta aurki abian jarriko dute Jesusen Bihotza Ikastolakoe, bere Villabonako eta Zizurkileko eraikinetan.

Villabonako Udalak hileru bilera bat antolatzen du euskararen inguruko eragileekin. Bilera horietan euskararen alde proposamenak luzatzeko eskatzen du Udalak eta horietako batean *Euskaraz Mintza* proiektuaren ideia jarri zen mahai gainean. Lasarten martxan dagoenaren berri izan eta gero. Amaia Agirre *Ulibarri* programaren (Ikastetxetako Hizkuntza Normalkuntza) arduraduna da Fleming ikastetxean. Berak azaltzen duenez, «gelaz kanpoko ekintzetan euskararen presentzia bermatzea da helburua. Proiektua ez da bakarrik ikasleei zuzendu-



Hainbat jolas mota egin dituzte hurrek saioetan, horien artean, harrapeketa. I. GARCIA

ta, irakasleentzako eta gurasoentzako ere bada».

Hala, hiru fasetan egiten ari dira proiektuaren garapena. Alde batetik, irakasleagoak formazioa jaso zuen. Bestalde, ikasleak eguerdi aldean jolasean ari diren dira eta gurasoek aurki ikastaroa jasoko dute.

Guztiaren ardatza jolas tradizionalak dira eta hauek euskaraz egiteko ahalmena izatea. Sokasalto, goma jolasak, korroan, esku jolasak, harrapeketa, zotz egiteko formulak... euskaraz egiteko formazioa eskaintzen dute Sortzen Ikasbatuaz elkartetik. Hurrek jolas-

ten duten garaian —jolas denboran, eguerdian, arratsaldetan— euskaraz egiteko aukera izango dute.

Irakasleei ere ondo etortzen zaie betiko jolasak euskaraz nola egin daitezkeen jasotzea, Agirrearen ustetan: «Errekurtsok ematen dizkigu, haurre-

ADIBIDE BAT ▶

Sokasaltoan. Musika ezaguna duen abestia sokasalto jolasean euskaraz nola kantatu daitekeen adibidea:

*Pello txoferrak lere,
atzo esan zidan lere,
ea nahi nuen lere,
autoz ibili lere.*

*Nik esan nion lere,
ez nuela nahi lere,
trenetz ibili lere,
nahiago nuela lere.*

kin jolasten dugunean edo barnetegiren batera joaten garenean jakiteko euskaraz nola egiten diren jokoak». Gurasoen kasuan, seme-alabekin jolasterako garaian ere errekurtsio horiek izan ditzaten da helburua.

Jesusen Bihotza Ikastolako *Euskaraz Bizi* egitasmoaren arduraduna da Nerea Urdanpileta. «Arlo ezberdinetan egunerokotasunean euskara erabiltzea da *Euskaraz Biziren* helburua, ikasleen arteko harreman libreak euskaraz izatea», dio. Hain zuzen, *Euskaraz Mintza* programa egitasmo horren baitan kokatu dute, helburu berdinak dituzte.

Udala Ikastolarekin kontaktuan jarri zen eta hortik sortu zen programa abian jartzeko asmoa. Ikasleek datorren asteetik aurrera hartuko dute parte. Irakasleek aurki egingo dute formazioa eta gurasoentzat ere ikastaroa antolatuko dute, datorren hilean seguruenik.

Laguna da erreferentea

Joko hauek Lehen Hezkuntzako ikasleekin landu ohi dira. LH1etik LH5era bitartekoei hartzen dute parte Fleming eskolan eta eguerdian aritzen dira jolasean. Jesusen Bihotza Ikastolan, Haur Hezkuntzakoek eta LH1etik LH4 bitarteko ikasleek hartuko dute parte, jolas denbora garaian.

Idurre Lucas ari da begirale lanetan Fleming eskolan. «Garaian horretan ikaslearen erreferentia ez da janirik irakaslea izaten, baizik ikaskidea, laguna», dio Lucasek. «Lagunarekin nola hitz egiten duen du garrantzia, ea elkarren artean euskaraz egiteko baliabiderik duten». Hain justu, ordu erdiko saioetan horixe lantzen dute, elkarrekin euskaraz jolastea.

«Niri denek euskaraz egiten didate», dio begiraleak. «Beraien artean orkorrean euskaraz egiten dute. Agian baten bati gaztelaraz egiteko ohitura dute eta horrela hitz egiten diote, baina orkorrean beraien artean euskaraz komunikatzen dira».

TOLOSA ▶

Udaberri dantzari taldearen bilera gaur, 20:30ean

Udaberri dantzari taldeak, 50. urteurrena dela medio, jakinarazi nahi du bilera bat antolatu duela gaurko 20:30ean, bere lokalean, Igarondo igerilekuaren ondoan. Bilera honetara oraindik taldearekin harremanetan jarri ez diren taldekide ohiak azaltzera gonbidatzen ditu, urterari buruzko informazioa jaso dezaten eta beraien partaidetza bultzatzeko.

TOLOSA ▶

'El leñador' filma gaur iluntzean, Zine-forumean

Gaur, ostegunero bezala, *El leñador* filma botako dute Leidorren, jatorrizko bertsoioan, Zine-forumaren barruan. Nicole Kasell-en film hau ordutegi ezberdinetan eskainiko dute: 19:15ean eta 21:45ean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarrendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KULTURA

Bertso eskolako kideek antolatuta, bertso jaialdia

Data erabat zehaztu gabe dago, baina ziurrenik otsailaren 22an izanen da



Diego Riaño bertsoa botatzen 2006. urteko finalerdian, Leitza. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Leitzako bertso eskolako kideek bertso jaialdia antolatu dute iristear dagoen Nafarroako Bertso Txapelketari begira ba-

rrenak berotzen joateko. Ziurrenik hilaren 22an egingen dute, baina Unai Elizasuk, bertso eskolako kideak, azaldu duen bezala, «oraindik erabat zehaztu gabe dago, baina aste

horretako egunen batean izango da».

Bertso jaialdia lehengo urtean ere egin zuten. «Lehengo urtean lagun artean egin ginen eta aurten jende gehia-

gori esan nahi diogu». Herriko zineman ospatuko den jaialdi honetan herriko bertso eskolako bertsolariak ariko dira eta helburu nagusia, martxoan burutuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketarako prestatzea da, bertan Migel Mari Elosegik, Luze, eta Diego Riañok parte hartuko baitute. Elizasuk esan duenez, «zinemako jaialdiaren bitartez txapelketarako prestatzeko oholtzaren altuera aprobetxatuko dute, eta mikrofonoa bera ere bai». Izan ere, astean zehar udaletxean bitan biltzen diren arren, ezberdina da, ez baitute ez mikrofonoa ez oholtzarik erabiltzen. «Sentsazioa ezberdina da», dio Unai Elizasuk.

Diego Riañok Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdian martxoaren 3an parte hartuko du. Migel Mari Elosegik, berriz, martxoaren 10ean. Osotara 3 finalerdi jokatu dira. «Finalerdietan parte hartuko duten 18 bertsolarietatik, 6 edo 8 iritsiko dira finalera».

ARESO ▶ AZPIEGITURAK

Mikel Baraibar: «Elutsederko lanak ziurrenik hurrengo astean hasiko dira»

Ezinbestekoa den baimena aste honetan iritsiko dela uste du alkateak

N. GARZIA

Elutseder industrialdea handitzeko lanak hastear daude, izan ere, Aresoko Udala Nafarroako Gobernuko baimen baten zain dago.

Mikel Baraibarrek, Aresoko

alkateak, azaldu duen bezala, «berez guk lehenago hasi nahi genuen, baina nahiago izan dugu paper guztiak eskuartean izan arte itxaron». Paper horren gora-behera egin beharreko zerbait denez, hau Nafarroako Gobernuko departamentu

batetik bestera pasatzeko zai daude. Halere, baimena aste honetan jasoko dutela ziurtatu du Aresoko alkateak eta orduan berehala hasiko dira industrialdea zabaltzeko lanetan. «Behin baimena jasota, hurrengo astean edo hasiko

dira lanean. Obrak burutuko dituzten enpresarekin hitz egin dut eta jada jakinaren gainean daude». Obrek 14 hilabetetako iraupena izanen dute eta Sukia enpresa gipuzkoarrak egingen dituzte.

Elurraren ondorioak

Bestalde, duela aste pare bat Elutseder industrialdeko pabilioi baten teilatua hondoratu ondoren, enpresa horri atxikita dagoen beste pabilioia kaltetuta ez zegoela egun horretan bertan erabaki zuten. «Egun hartan udaleko arkitektoa bertan izan zen eta bata bestea ez zuela kaltetu argi ikusi zuen, biak elkarrizkatsa egin zuten, baten teilatua hondoratzeko ez ziola besteari inolako kalterik eragin, alegia», dio Baraibarrek. «Halere, nik esan nien, haien ardura izan arren, beharbada komenigarria izango zela ongi begiratzeko, azken finean ondoko pabilioiaren enpresa berak eraiki baitzuen».

Burnilan eta M-Latz enpresen pabilioiaren teilatua urtarilaren 25ean hondoratu zen, elurraren pisuarengatik.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Pisua. Lekunberrin pisua alokatzen da. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 44 48 66.

LANA

Sukaldari laguntzaileak. Eskoletarako, udaletarako. Interesatu daudenak deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 44 48 66.

Gidariak. Erakunde publikoetarako behar dira. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 44 48 66.

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta tetxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43 ra.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Zein iritzi duzu Voith-Gorostidiko eremuan eraikiko dituzten etxe tasatuen inguruan? Garestiak iruditzen al zaizkizu? Eman zure iritzia eskualdeko egunkariaren webgunean, eztabaida izeneko gure atalean.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Elizbarrutiko bokazio-pastoraltzak *Kristoren erara erantzun* izeneko hitzaldia antolatu du 16:00etan Santa Mariako Parrokia etxeko aretoan.
Tolosa. Zaldunita Bezperako Danborradarako entseguak gaur izango da Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 13an Musika Eskolan Bandarekin, 20:00etan.
Tolosa. Heleta-Baigorri (Behe Nafarroa) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 6. 943 65 27 89)
Villabona. Datorren igandean Gorbeira joango da Aizkardi mendi elkartearen. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan.

ZINEMA

Tolosa. Nicole Kassell zuzendariaren *El leñador* filma emango dute zine-forumean, Leidor zineman 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian.
Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.
Alegia. Isabel Mujika tolosararren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Minbiziari nola aurre hartu

ALEGIA ▶ Lourdes Aritziturri doktorea izan zen Alegiko Kultur Etxean hitzaldia ematen eta entzule askoren galderak erantzuten



20 bat lagun joan ziren hitzaldira. Eskuinean, Txaro Beobide eta Lourdes Aritziturri medikua. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Minbizia da mende honetan jende gehienak jasaten duen gaixotasunetako bat. Gorputzeko ia atal edo organo gehienetan garatzen da gaixotasuna: Alegiko Inazio Begiristain kultur eta kirol etxean hitzaldia izan zen atzo, baina minbiziaren baina, bular eta ginekologia minbiziaren prebentzioaz aritu zen Lourdes Aritziturri medikua.

Bertan Txaro Beobide ere izan zen, Gipuzkoako ginekologia eta bularreko minbiziaren emakumeen elkarteko ki-

deen izenean. «Bularreko minbiziaren goiz detekzioari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruz ondo informatuak egotea funtsezkoa da». Bertan bularreko minbiziaren arrazoiaren azterketaz, tratamenduz, prebentzioaz, eta abarretaz aritu zen medikua.

Aurkezpena egin ondoren bideo bat ikusi zuten, eta jarraian hitz egiten hasi ziren, informazio hurbilagoa emanez. Elikadura eta ohitura onak izatea, besteak beste, «oso garrantzitsua da minbiziaren ekiditeko orduan». Detekzioarako eman behar diren pausoak ere

ezagutzera eman zituzten, beste artean.

Hitzaldiak Katxalin elkartearekin lanean aritzen direlako egiten ditu: «Elkarte honetan Gipuzkoako ginekologia edo bularreko minbiziaren emakumeak daude». Kutzaren Gizarke-Ekintzaren baitan dagoen Institutu Onkologikoan egiten du lan Lourdes Aritziturri.

«Bularreko minbiziaren agian emakumeen artean gehien ezagutzen den minbizi kasua, arruntena: baina badira ginekologia kasuko beste hainbat». Hitzaldian sexu-organoan izan daitekeen papilo-

ma birusaren aurkako txertoak ere mintzatu zen. Izan ere, horretarako txertoak ere badira, oraindik neska gazteak direnean hartzeko. Hasiara batean «heitzeko programa bat darabagu aurrera, osasuna gehiago zaintzeko, duela urte batzuk bularreko minbiziaren prebentzioa eta gero ginekologiako minbiziaren hasi ginen».

Berataratu ziren 20 lagunek esperientzia handia duten bi emakumeen hitzak entzuteaz gain, esperientzia ezberdinak eta minbiziarekin loturiko informazio hurbila jaso ahal izan zuten.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaltzeko bulegoa